

MASSADA-REN

KONPLEJOA

«Gauza bat jakin behar da —izkiriari du berriki André Fontaine kasetariak, azaroaren 30eko Le Monde-n, judu arazoaz ari zelarik—. Beldur etsia betiereko laguntzat izana duen herri hau, gaur ere Massada-ren konplejak ikutzen du; alegia, irteerarik gabeko gataska etsituaren buruan, beren buruak denek batera hiltzekoak... Egia garratza, baina egia hutsa.

Eta lehenengo zantzuak hasiak bide dira nabaitzen. Ikarak hartuta, eta denak batera halako batez berriko ere hilerazirik gertatzeko susmo beltzak asalduta, ihes egiten hasi omen dira beldurtienak. Europako prentsan ere kezak azaltzen hasi dira (Vercors, Daniel, 31 intelektualek deia Sartre barne); eta bigarren «azken soluzioa»-ren zurrumurruak mamituaz doaz.

Eta judutarrek, berriz ere, haien gain madari-kaziorik bortitzena erori balitz bezalaxe, milaka hiltzeko arriskutan ageri zaizkigu. Massada-ko gerteluan gertatu zen izugarrikeria (beren burua errotarren menpean onartu nahi ez izanik, lehenengotik azkeneraino denek hil baitzuten), berriz ere gertatzeko zorian bide dago.

Eta guk palestinarrekiko eta arabitarrekiko dugun jaiarak ez gaitu eramaten juduentzako inolako hiltzaririk ez zapalketaririk onartzera. Ez ahal da aski izan orain artekoa? Hitlerrek hil zituen 6.093.000 martiria, ez ahal dira aski? (alemanen eskuetara erori ziren juduetatik % 73,4!!) Sionismoaren kontrako herran (oso «modan», ongi dakit) ez ote dago, funtsean, jakkeraz bestelakaturik, betidaniko antisemitismoa? Ez ahal da hau betidanik izan atzerakoi eta arrazakoiaren ezagarririk zabalduena? (Dreyfuss eta abar).

«Juduen eskubideei bai, sionisten asmoei berriz ez», entzun ohi da, ordea, zenbaiten ahotan. Xede onez eta finki jokatzu gero, halere, nola esan daiteke horrelakorik?

Sionismoa (alegia, juduek Israel beren erresuma berezia eta askatua eraikitzeakotan sortu den mugimendua) zuzena da izan; eta nazio bat eta erresuma bat izateko eskubidea juduei ukatzen zaielarik, arrazakeria egiten da, ene ustez. Zeren-eta herri *guztiek* baitute beren burua libroi eta erresuma berezi batetan gobernatzeko eskubidea; eta ez batzuek soilki. Sionismoa bidezkoa da errotik.

Bidezkoa bakarrik ez, bestalde. Beharrezkoa ere bai. Ezen juduek mendeetan barrena, bai Ekaldean bai Mendebaldean, bai kristau herrietan bai mahomatarretan, bai XX. mendean bai X.an, jasan duten galbarioa ezagutu ondoren, bidezkoa baita munduko eskualderen batetan beren burua babestu nahi izatea, pausaleku bat edo ihesleku bat nahi izatea, eta bertan beren burua beren kabuz eta beren gisara eraman nahi izatea. Inoren gan nahi hori uler badaiteke, juduetan behar litzateke ulertu.

Hots, alde batetik judutarren *nahia* dago, hizkuntzaren pizkunde harrigarrian eta basamortuko eskualde bakartietan ederki frogatua. Eta bestetik, judutarren *beharra* dago: Israel sortu eta lehenengo hiru urteetan, 673.000 judu bildu ziren hara, denak utzita.

Baina, beste muturrean, eta orain dela aste bakar batzuk irakurri dudanez, Tunisia-ko juduen azken ordezkaria kendua izan da Parlamentotik. Nork erreparatu du? Nor mintzatu da abotsik gabe gelditu diren judutar horien alde? Nork aipatu ditu Ipar-Afrikatik eta Mendebal-Erdetik kanpora behar izan duten 800.000 juduak? Azken urte hauetan ere judu gehiagok galdu baitu bere sorlekua palestinarrek berek baino! Baina judu desherritu horien alde inor mintzo ez. (On luke irakurleak Memmi-ren azken liburu mamitsua irakurtzea: «Juifs et Arabes», Gallimard, Idées n.º 320, 1974).

Nun, ordea? Problema latza, dudarrik gabe. Palestinarrek berek diotenez, ordea, beren abertza ez dute Palestina, «Arabitar Nazioa» baizik. Logikaren arabera, hortaz, Palestinatik kanpora ere, eta berek aitorturik, besherririk ez; eta badukete Aberri bat: «la Nation Arabe». Hizkuntzaren eta erlijioaren batasunak, bestalde, aisa funtsa lezake hori. Judutarrek, berriz, ez dute horrelako gordalekurik; ezer izatekotan Israel dute, aspalidanik inperialismoak eraginik utzia.

Hots, Fontaine berak ongi dionez, «leur retour en Terre Promise relève de l'épopée, non du bas calcul politique». Juduek Israelen 1948az geroztik egin dutena (eta 1948 baino lehenago ere egina zutena) *ezin-sinetsizkoa* da: ez da inoiz ikusi bultzada horretaraino heldu den herririk. Diru-oparotasunean azalpena bilatu nahi izatea, maingu gelditzea da. Gertakari miresgarria da Israel, zinez. Eta euskaldunok esperentzia horretan geure begiak maizago ez jarri izanak, geure ahulezia eta geure koldarkeria argiro erakusten ditu. «Moda»n ez egoteko beldurrak janak... pikutara!!

Israel inun sortzekotan, beraz, Israelen; eta Mundu-Guduaren ondoren ahobatez erabaki zuten hori nazio guztiek.

Eta, Palestinarrak? Alde batetik, erantzungo dugu, badukete, beraien hitzez esateko, Israeldik kanpora milaka kilometrotan barrena zabalzen den «la Nation Arabe» delakoa, «Aberri bakar-tzat». Eta, bestetik, jakina, Israelen *alboan* sortu behar zen «Palestinako Erresuma». Joan beharraz kalteburik daudenez, ordain-sari bat hartu behar lukete.

Ez omen da hau soluzio bat. Askoz ere okerrago litzateke, ordea, Vercors-ek eta D. Mayer-ek esan duten bezala, juduei Israelgo erresuma eraikitzeko eta atxikitzeko eskubidea ukatzea; eta, Hitlerren hildotik, bi miloi lagun horiek «itsaso»-ra botatzeko. Nora joango lirateke ta? Erantzun begiku.

Palestinaren leku-aldaketa behar hori salatzen dutenek, ordea, fitsik ez dute esaten Gomulkaren ekintzaz, esate baterako. Hots, gerla bukatuta, Gomulkak «poloniar»-tu zituen Prusiako eta Silesiako aleman herrialdeak, beren etxeetatik 12.000.000 aleman botatuz.

Txokoslobakiatik, era berean, 3.217.000 aleman bota dituzte gerla ondoren beren etxeetatik; eta sekula ez da inor hainan alde mintzo.

Krimeako Tataroetatik, % 71 bizi dira gaur beren sorlekutik kanpora; eta Grigorenko jeneralaik hau aipatu duelako, «psikiatrikoa» ezagutu da, erotzat hartua.

Irak-ek, 1968 aldean, hamarka milaka kanporatu zituen beren etxeetatik irandarrak; eta Bangladesh-en, Tibeten eta Indian, beste irtenbiderik ezin bilaturik, *miloi*ka lagun aldatu behar izan dira, sorlekua betirako utzirik.

Neurrien liferentzia horrek harritzen gaitu. Edo, hobeki esateko, ez gaitu batera harritzen!

Palestinaren alde bai, beraz. Noski! Baina modako demagojetara lerratu gabe, eta Israel-en eskubidea ongi markatuz. Eskubide *berbera* dute palestinarrek eta judutarrek erresuma libro bana eraikitzeko: bataren eskubideak ez du besteren eskubidea ukatzen.

Soluzio bakarra, horretara, *bi* erresumen eraikiera eta errespetua da. Juduentzako zinez beste apokalisirik desiratzen ez bada, horixe da bidea. Bide hertsia, bai; baina bakarra.

«Auschwitz-en ondoan» juduek ez dute atzera egingo. Massada-n bezala hilko dira denak, «just-qu'au dernier»!

Eta Vercors-en hitzez esateko, «Si l'absence de patrie pour le peuple palestinien est un mal absolu qu'il est indispensable, certes, de réparer, la destruction de la patrie d'Israël serait un mal non moins absolu, et un des plus grands crimes de l'histoire».

LARRSORO



Eguberri jai zoriontsua,

PUBLIS 665/74

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA

